# ALDERDI BERRIAK

EAJ PNV

2006ko EKAINA • 7.zenbakia




"Helburua berriz asmatzea da, 1979 urtean egin genuen bezala"

"Acertamos en 1979 y ahora volveremos a acertar"

alianza galeuscat

www.eaj-pnv.com

KOORDINATZAILEA
COORDINADOR
Jose Unzueta

ERREDAKZIO TALDEA
EQUIPO DE REDACCIÓN
Luis Aranberri “Amatiño”
Saioa Zubizarreta
Iñaki Bernardo

ARGAZKIAK
FOTOGRAFIAS
Amatiño
Eduardo Charlot
Artxiboa
Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia
Ángel Ruíz de Azua

DIAGRAMAZIOA
DIAGRAMACION
EAJren Multimedia Departamendua

**ALDERDI BERRIAK** es una revista trimestral publicada por la Dirección de Comunicación del Euzkadi Buru Batzar.

**ALDERDI BERRIAK** Euzkadi Buru Batzarraren Komunikazio Zuzendariak argitara emandako aldizkari hiruhilabetekaria da.

# ALDERDI BERRIAK

2006ko EKAINA

# AURKIBIDEA
# SUMARIO

**Galeuscat: Compromiso de Estado desde la libre decisión (pag. 3)**

**Bakea eta bizikidetza. Itxaropenerako bidea (4.orr.)**

**Construir para vivir (pag. 6)**

**Imaz: "Helburua berriz asmatzea da, 1979 urtean egin genuen bezala" (7.orr.)**

**La Guerra Civil en Euskadi: testimonios de 136 exiliados (pag. 11)**

**No os debemos nada, no os agradecemos nada (pag. 12)**

**Galindez: desagertu zen lehen politikoa (14.orr.)**

**El "nacimiento" de la Ikurriña (pag. 15)**

## VOLVER A ACERTAR

EAJ-PNV acertó con su apuesta de autogobierno en 1979. Los resultados están a la vista. Es un valor socialmente aceptado. En 25 años hemos dado un gran salto en la construcción nacional, política, social, cultural y lingüística.

Hoy, nuestra generación debe formular las claves para los próximos años. Se trata de volver acertar y de acertar en tres retos: pacificación, normalización y acuerdo social.

La paz como prioridad, como victoria de los principios éticos. La normalización política, como modelo de convivencia que respete la voluntad democrática de los vascos en un marco de relaciones con el Estado, bilateral y garantista. Y un contrato social que haga de Euskadi referente líder en creatividad e innovación. La apuesta por las personas es la única que permitirá que la siguiente generación disfrute de estándares de vida superiores a los actuales.

Tenemos que acertar de nuevo. Igual que en 1979, necesitaremos de visión, liderazgo y disposición al acuerdo. Habrá entre nosotros maximalistas, esencialistas e inmovilistas. Pero, como en 1979, se impondrá la apuesta capaz de movilizar a la mayoría social que busca acuerdos y no confrontaciones. Ese es el camino a tomar. Y volveremos a acertar.

## BERRIRO ERE ASMATU

EAJ-PNVk asmatu egin zuen 1979ko aurtobernuaren apostuaz. Gizartearen onespena duen apostuaz. Emaitzak ikusi besterik ez dago. Azken 25 urteotan naziogintza, politika, kultura, gizarte zein euskara arloan sekulako urratsa jorratu da.

Oraingo belaunaldiak hurrengo urteetarako giltzarriak bideratu behar ditu. Berriro asmatu beharra dago, hiru erronkatan asmatu ere: bakegintzan, normalizazioan eta gizartegintzan.

Bakeak du lehentasuna, balore etikoen garaikur gisa. Normalizazio politikoa, euskal borondate demokratikoari zor zaion begirunez elkarbizitza erakarriko duena, bi aldetako harremanak bermatuko dituen Estatuaren baitan. Eta sorkuntzaz nahiz berrikuntzaz Euskadi buruzagi egingo duen gizarte-ituna. Pertsonen prestakuntzaren aldeko apostuak baino ez baitu segurtatuko hurrengo belaunaldien bizimoduaren hobekuntza.

Berriro asmatu beharra. 1979an bezala, behar izango ditugu irudimena, buruzagitza eta hitzarmenerako jarrera. Gure artean ez da falta izango gorago, beherago edo jatorrago jokatu nahi izango duenik. Baina, 1979an bezala, hitzarmenen aldeko eta iskanbilen aurkako gehiengo soziala bereganatuko duen apostuak irabaziko du. Hori da hartu beharreko bidea. Eta berriro asmatuko dugu.

# GALEUSCAT:
# Compromiso de Estado desde la libre decisión




Anxo Quintana, Artur Mas, Josu Jon Imaz eta Josep A. Durán i Lleida Sabin Etxean

**“Los nacionalistas ofrecemos diálogo y cooperación necesarios para hacer posible un gran acuerdo de Estado. Un acuerdo desde una doble asunción: nuestro compromiso en la construcción del Estado, a partir de nuestra libre decisión de implicarnos en el mismo”, manifestó Josu Jon Imaz, en el encuentro que Galeuscat mantuvo en Bilbao, el pasado 20 de mayo.**

Josu Jon Imaz (EAJ-PNV), Artur Mas (CDC), Anxo Quintana (BNG) y Josep Durán i Lleida (UDC) coincidieron en proponer “un acuerdo que cimiente la convivencia, desde el respeto a la pluralidad de los pueblos, naciones, culturas y lenguas que componemos el Estado” y aseguraron que “la historia del Estado español nos enseña que los avances en el reconocimiento de la diversidad de naciones que lo componen y la mayor calidad de la democracia siempre fueron procesos paralelos”.

Galeuscat conforma la tercera fuerza del Estado y la tercera vía entre el centralismo del PP y el neoautonomismo del PSOE. Los líderes de los partidos nacionalistas mayoritarios de Galicia, Euskadi y Cataluña mostraron “la convicción de que el reconocimiento jurídico-político de un Estado plurinacional es el mejor aval para la profundización de la democracia”.

La Alianza Galeuscat volvió a reunirse en Barcelona el 3 de junio y lo hará de nuevo el 22 de julio en Santiago.

**“Abertzaleok beharrezko elkarrizketa eta laguntza eskaintzen dugu, Estatu mailako itun zabala eragiteko. Abertzaleok Estatuaren eraikuntzaren parte izateko konpromisoa hartzen dugu, beti ere erabaki-ahalmena gure esku baldin badago” adierazi zuen Josu Jon Imaz Euzkadi Buru Batzarraren lehendakariak, maiatzaren 20an Galeuscat-ek Bilbon izan zuen bileran.**

Josu Jon Imaz (EAJ-PNV), Artur Mas (CDC), Josep Durán i Lleida (UDC) eta Anxo Quintana (BNG) bat etorri ziren Galeuscat-en gaurkotasuna aldarrikatzerako orduan: "Galeuscat ez da historia bakarrik. Galeuscat oraina da eta, batez ere, erronka, etorkizuna".

Ekintza politiko bateratua sendotzeko Galeuscatek gogoan dituen lau konpromisoak laburbildu zituen EBBren lehendakariak: Nazio aniztasuna baloretzat duten alderdi politikoen harremanak indartzea; nazio aniztasunaren alde elkarrekin jardutea, egoerak eta aukerak ongi aztertu eta jarduera iraunkorrak abian jarriz; elkarren arteko lankidetza lortzeko, gizarte elkarteekin harremanak sakondu; eta Diputatuen Kongresuko eta Senatuko politiken koordinazioa eragin, Estatuaren politikagintzan bertatik bertara parte hartu ahal izateko.

Bilboko bileraren ondoren Galeuscat Ituna Bartzelonan elkartu zen ekainaren 3an eta Santiagon batuko da berriro ere uztailaren 22an.

# Bakea eta bizikidetza
# Itxaropenerako bidea



El lehendakari Juan José Ibarretxe

**Cinco ejes: la defensa y la promoción de los Derechos Humanos; la solidaridad con las víctimas del terrorismo; la recuperación de la memoria histórica; la defensa de las libertades y la prevención de la tortura; y la defensa de los derechos humanos de las personas detenidas y presas. El camino a recorrer: la educación para la Paz y la Convivencia. La reconciliación.**

La propuesta de Paz y Convivencia, aprobada por el Consejo de Gobierno el pasado 2 de mayo, se inspira en 5 ejes de actuación:

Eje 1.- La defensa y la promoción de todos los Derechos Humanos.

Con el compromiso del respeto a la vida y desde el rechazo a todas las acciones de violencia, hacemos una apuesta decidida por las vías exclusivamente pacíficas y democráticas para la resolución de conflictos.

Eje 2.- La solidaridad con las víctimas del terrorismo.

Manifestamos nuestro reconocimiento total e incondicional a las víctimas del terrorismo, como exponente máximo de la injusticia cometida con la violencia y el temor. Nos

**Bost ardatz: giza eskubide guztiak babestea eta sustatzea; terrorismoaren biktimekin bat egitea; memoria historikoa berreskuratzea; askatasunak babestea eta torturari aurre hartzea; eta atxilotuta edo preso daudenen giza eskubideak babestea. Egin beharreko bidea: "bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza. Berradiskidetzea".**

Joan den maiatzaren 2an Gobernu Kontseiluak onetsi zuen bake- eta bizikidetza-proposamena funtsezko 5 jarduketa-ardatz lantzen ditu:

1. ardatza.- Giza eskubide guztiak babestea eta sustatzea.

Bizitza errespetatzeko konpromisoan oinarrituta eta indarkeriazko ekintza orori uko eginez, gatazkak bakearen eta demokraziaren bidetik bakarrik konpontzearen aldeko apustua egin dugu.

2. ardatza.- Terrorismoaren biktimekin bat egitea.

Erabateko eta baldintzarik gabeko onarpena erakutsi nahi diegu terrorismoaren biktimei, terrorismoa indarkeriaz eta beldurraz baliatuta egiten diren bidegabekerien adierazle nagusia baita. Orobat, hitzematen dugu biktimen ikuspegia ere barneratuko dugula, ikuspegi etikoari dagokionez, justizia-

comprometemos a incorporar la mirada de las víctimas para, desde una perspectiva ética, responder a sus demandas de justicia y reparación, y desde una perspectiva social, reconocerles el papel esencial en cualquier proceso de paz.

Eje 3.- La recuperación de la memoria histórica y reparación a las víctimas del franquismo.

Tenemos una deuda pendiente con las víctimas del franquismo que queremos paliar como garantía de justicia y de reconocimiento. Para ello ponemos en marcha un conjunto de iniciativas para recuperar la memoria histórica y favorecer e impulsar el derecho a la reparación moral y económica.

Eje 4.- La defensa de las libertades y la recuperación de los derechos civiles y políticos.

La propuesta defiende el ejercicio de los derechos civiles y políticos y promueve iniciativas de respeto a los derechos fundamentales de expresión, reunión y participación política, desarrolla medidas de sensibilización a favor de la libertad de información e impulsa la reflexión y toma de conciencia sobre la gravedad del cierre de medios de comunicación.

Eje 5.- La prevención de la tortura y la defensa de los derechos humanos de las personas detenidas y presas.

Reiteramos nuestro compromiso irrenunciable con la prohibición de la tortura y propugnamos una política penitenciaria respetuosa con los derechos humanos de las personas penadas y de sus familiares.

Vamos a garantizar la supresión de la tortura y los malos tratos, desarrollando iniciativas de vigilancia, prevención y control, así como la intervención de las organizaciones internacionales en los casos en los que se dé.

## La educación para la paz y la convivencia. La reconciliación.

La educación en la paz y en los valores democráticos es un quehacer diario, un camino que debe desarrollar cualquier sociedad que anhele la paz. Es la vía para consolidar la deslegitimación de la violencia como forma de resolución de conflictos y su progresiva sustitución por un sistema de convivencia pacífico y democrático.

La educación es un proceso continuo y permanente, un camino en el que se van sentando las bases de un nuevo tipo de cultura que ayuda a las personas a enfocar la realidad desde el diálogo, el respeto, la tolerancia y la solidaridad.

Porque vivir en paz no significa vivir sin conflictos, sino hacerles frente sin violencia de ningún tipo.

Para ello nos comprometemos a generar en nuestra sociedad el espíritu de autocrítica, la humildad para pedir perdón y la generosidad para perdonar, como caminos que hay que andar hacia la anhelada reconciliación.

eta kalte-ordain eskaerei erantzuteko eta, ikuspegi sozialari dagokionez, edozein bake-prozesutan duten funtsezko eginkizuna aintzatesteko.

3. ardatza.- Memoria historikoa berreskuratzea eta frankismoaren biktimei kalte-ordaina ematea.

Frankismoaren biktimekin zorra dugu. Horretarako, memoria historikoa berreskuratzea eta kalte-ordain moral eta ekonomikorako eskubidea sustatzea helburu duten ekimenak abiarazi ditugu.

4. ardatza.- Askatasunak babestea eta eskubide zibil eta politikoak berreskuratzea.

Proposamenak eskubide zibil eta politikoak sustatzea babesten du eta adierazteko, biltzeko eta politikan parte hartzeko oinarrizko eskubideak errespetatzeko ekimenak sustatzen ditu; orobat, informazio-askatasunaren aldeko sentsibilizazio-neurriak garatzen ditu eta komunikabideak ixtearen larritasunaz hausnarketa egitea eta ohartaraztea bultzatzen du.

5. ardatza.- Torturari aurre hartzea eta atxilotuta eta preso daudenen giza eskubideak babestea.

Berriro adierazi nahi dugu tortura eta beste edozein trataera krudel eta iraingarri debekatzeko gure konpromisoa eta presoen eta hauen senideen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxeratze politikaren alde egiten dugu.

Tortura eta tratu txarrak ezabatzea bermatuko dugu zaintza-, prebentzio- eta kontrol-ekimenen bidez; orobat, tortura erabiltzen den egoeretan nazioarteko erakundeen esku-hartzea ere ziurtatuko dugu.

## Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza. Berradiskidetzea.

Bakean eta balio demokratikoetan heztea eguneroko zeregina da eta bide hori bakea irrikatzen duen gizarte orok hartu behar du. Bakean eta balio demokratikoetan hezteak lagunduko digu indarkeria gatazken konponbide gisa deslegitimatzeko prozesua finkatzen eta, pixkanaka, indarkeria hori bizikidetza-sistema baketsu eta demokratikoarekin ordezten.

Hezkuntza prozesu iraunkorra eta etenik gabekoa da, pertsonei errealitatea elkarrizketaren, errespetuaren, tolerantziaren eta solidaritatearen ikuspegitik hartzen laguntzen dien kultura-mota berri baten oinarriak finkatzen joateko bidea. Bakean bizitzeak ez du esan nahi gatazkarik gabe bizitzea, baizik eta horiei inolako indarkeriarik gabe aurre egitea.

Horretarako, hitzematen dugu gure gizartean autokritikarako espiritua, barkamena eskatzeko umiltasuna eta barkatzeko eskuzabaltasuna landuko ditugula, halaxe egin behar baita gure seme-alabei eskaini nahi diegun hurbileko etorkizunean hainbeste irrikatzen dugun berradiskidetzea lortzeko.



Gema González de Txabarri

# Construir para vivir

**Dejando a un lado las cuestiones que aún tenemos sin resolver como la pacificación, la normalización política o la preservación de nuestra lengua e identidad, hoy la falta de un acceso normalizado a la vivienda es el mayor problema que tenemos como sociedad y uno de los que mayores problemas derivados acarrea.**

El esfuerzo sincero que hemos hecho para aportar soluciones a este tema y la respuesta recibida nos han dado algunas claves de la política vasca actual:

1.- Somos los únicos que, enfrentando el problema, hemos propuesto consecutivamente fórmulas tan radicales como eficaces, evidenciando nuestra falta de ataduras y capacidad de proponer soluciones reales.

2.- Los autodenominados partidos de izquierda (salvo honrosa excepción) han estado bien lejos de demostrar con los hechos su progresía, su arrojo. Han demostrado, unos, miedo-conservadurismo, otros, ataduras y los últimos, indiferencia aunque todo se pudra y a costa de la sociedad. Casi todos han demostrado su valentía, aquí sí, en el recurso al enredo y al engaño. Nosotros hemos actuado con honradez y el resultado ha sido dar un paso en la dirección correcta, dejando el camino libre para que nuestra filosofía sea realidad en los municipios donde gobernamos. Un dato: en Europa la tasa de construcción varía en sentido inverso al PIB por habitante. Cuanto menor es este, más se construye. Nuestro empeño ha sido ligar la construcción de vivienda a su función social, garantizando que se construya para vivir. Ahora dependerá en buena medida de nosotros mismos.

Gema Gonzalez de Txabarri Miranda
Burukide de Asuntos Sociales del EBB y parlamentaria

**Oraindik konpontzeke ditugun gaiak alde batera utzita, hots, bakegintza, normalizazio politikoa edota gure hizkuntzari eta nortasunari eustearena, gaur egun gizarte gisa dugun arazorik handiena, hari loturik hainbat eta hainbat arazo eragiten duena, etxebizitza eskuratzeko aukera normaldurik ez izatea da.**

Arazo hori konpontze aldera gogotik egin ditugun ahaleginon emaitza gisa, jaso ditugun erantzunek egungo euskal politikaren gako hauek eman dizkigute:

1.- Arazoari aurre eginez, funtsezkoak bezain eraginkorrak diren formulak proposatu ditugu etengabe, inongo loturarik ez dugula eta egiazko irtenbideak proposatzeko gauza garela erakutsiz.

2.- Ganorazko salbuespenak salbuespen, beren buruari 'ezkerreko alderdi' esaten diotenek ez dituzte inolaz ere beren aurrerakoitasuna eta ausardia erakutsi. Batzuek beldurra eta kontserbadorismoa erakutsi dute, beste batzuek, lokarriak, eta azkenek, berriz, axolagabetasuna, gauza oro usteldu edota gizartearen beraren kalterako izan arren. Halaber, azken guzti hauek argi eta garbi erakutsi dute engainatzeko eta bazterrak nahasteko lotsarik batere ez dutela. Guk zintzo jardun dugu, eta horren ondorioz norabide egokian abiatu gara, gure filosofia benetan gara dadin geuk gobernatzen ditugun udalerrietan. Datu bat: Europan, eraikuntza-tasa biztanleko BPGren alderantzizko zentzuan aldatzen da. Hau da, barne produktu gordina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta eraikuntza gehiago altxatzen dira. Gure asmoa izan da etxebizitzen eraikuntza bere gizarte-funtzioarekin lotzea, bizitzeko eraiki dadila bermatuz. Orain gure eskuetan egongo da hori lortzea.

Gema Gonzalez de Txabarri Miranda
Gizarte Gaietarako EBBren burukidea eta legebiltzarkidea

# IMAZ: "Helburua berriz asmatzea da, 1979 urtean egin genuen bezala"



Josu Jon Imaz EAJren legebiltzarkideen aurrean

"Sois los autores de un éxito. Entre 1977 y 1980, la generación que nos precedió, muchos de los cuales estáis aquí, acertasteis. Gracias a vosotros y a la apuesta asumida en 1979 por la mayoría social y política vasca, Euskadi es hoy más nación que nunca, es una sociedad moderna, con más bienestar y calidad de vida, con más autogobierno". Con estas palabras Josu Jon Imaz agradeció la labor de los parlamentarios que de 1980 a 2006 han representando a EAJ-PNV en la cámara vasca.

El presidente del EBB recordó aquellos años: "en la primavera de 1977, en Txiberta, se celebra una reunión entre los partidos nacionalistas de este país. ETA participa en aquella reunión y, con presencia visual de armas en la mesa, conmina al conjunto del nacionalismo vasco a no presentarse a las elecciones de junio de 1977. El PNV rompe el cerco y adopta

"Arrakastaren egileak zarete. 1977-1980 urteetako belaunaldikook, eta haietako asko hemen zaudete, asmatu egin zenuten. Zuei esker eta euskal gehiengo sozialari eta politikoari esker, Euskadi inoiz baino nazioago da gaur egun, gizarte modernoagoa da, ongizate, bizi-kalitate eta autogobernu handiagoaz". Honela eskertu zuen Josu Jon Imazek Euzko Alderdi Jeltzalearen izenean 1980tik 2006ra bitartean Eusko Legebiltzarrean aritu diren legebiltzarkideen lana.

Euzkadi Buru Batzarraren lehendakariak garai hartako pasarteak gogoratu zituen: "1977ko udaberrian, Txibertan, herri honetako alderdi abertzaleen arteko batzarra egin zen. ETAk parte hartu zuen bilera hartan eta, armak mahai gainean jarrita, mehatxu egin zien euskal abertzale guztiei 1977ko ekaineko hauteskundeetara ez aurkezteko. EAJk hesia apurtu



Foto de familia de los parlamentarios de EAJ-PNV entre los años 1980-2006

una decisión valiente y arriesgada pero coherente con el contexto que se vivía. Conscientes de las carencias de la transición democrática tutelada por las instituciones todavía vigentes del Viejo Régimen, pero convencidos de que el contexto internacional avalaba aquella Transición".

Los resultados de aquel acierto están a la vista: "el autogobierno alcanzado es un valor socialmente aceptado. Hasta el punto de que quienes no lo aceptaron por considerarlo poco, tratan 30 años más tarde en buscar una vía de enganche para justificar el desacierto y la tragedia de la decisión que tomaron en Txiberta. Y quienes no lo aceptaron por considerarlo excesivo, celebran cada 25 de octubre su aprobación con cava".

## Euskadi, más nación que nunca

Si la apuesta política del autogobierno fue la primera de las grandes decisiones de finales de los 70 y la década de los 80, en opinión del presidente del EBB "la segunda gran decisión fue la apuesta por la transformación económica y urbana vasca. No hay más que salir a la calle para ver los resultados. Resultados de los que todos vosotros sois autores y agentes activos".

"Euskadi es también hoy más nación que nunca -aseguró Josu Jon Imaz-. La apuesta asumida en 1979 por la gran mayoría social y política vasca ha logrado que Euskadi haya pasado de ser una formulación ideológica del nacionalismo a convertirse en una realidad sociológica y jurídico-política. Hoy, la definición jurídica de "Alava, Bizkaia, Gipuzkoa así como Navarra" emana de la "expresión de su nacionalidad", de su ser nacional vasco, gracias al

eta une historiko harekin bat zetorren erabaki ausarta eta arriskuz betea hartu zuen. Erregimen Zaharreko erakundeek babestutako demokraziarantz egindako trantsizioaren gabeziez jabeturik, baina jakitun nazioarteak bermatzen zuela Trantsizio hura".

Asmatze haren emaitzak begi bistakoak dira egun: "lortutako autogobernua gizarte mailan onartutako balorea da. Eta horren frogagarri, eskastzat joteagatik onartu ez zutenek, 30 urte beranduago, Txibertan hartu zuten erabakiaren desegokitasuna eta tragedia zuritzeko lotura-bide bila aritu beharra da. Eta gehiegizkotzat jo zutelako onartu ez zutenek, berriz, urriaren 25ero hura onartu izana cavaz ospatzen dute".

## Euskadi, inoiz baino nazioago

Autogobernuaren apustu politikoa 70eko amaierako zein 80ko hamarkadako erabaki nagusien arteko lehenengoa izan bazen, Josu Jon Imazen ustez "bigarren erabaki nagusia, sare ekonomikoa eta hirikoa eraberritzearen aldeko apustua da. Nahikoa da kalera ateratzea orduko erabakien emaitzaz jabetzeko. Eta emaitza horien egile eta eragile zuek denok zarete".

"Euskadi, gaur egun, inoiz baino nazioago da -aditzera eman zuen Imazek- 1979an gizartearen gehiengoak eta euskal politikak bere gain hartutako erronkak lortu dituzte, Euskadi abertzaletasunaren formulazio ideologiko izatetik errealitate soziologiko, juridiko eta politiko izatera igaro da. Egun, Arabaren, Bizkaiaren, Gipuzkoaren zein Nafarroaren definizio politikoa nazionalitate adierazpenetik dator, nazional izatetik. Hori guztia duela 25 urte herri honen gehiengoak ekin zuen ibilbideari esker lortu da;



camino que la amplia mayoría de este pueblo inició hace más de 25 años, frente a quienes decidieron usurpar violentamente la voluntad mayoritaria del Pueblo Vasco. Euskadi es hoy más nación también desde el punto de vista social. El Parlamento, el Gobierno, el Lehendakari y las instituciones propias son las más valoradas; nuestros hijos e hijas utilizan el euskera en proporción muy superior a las generaciones anteriores".

## Pacificación, normalización y acuerdo social

En palabras de Imaz, ahora "la clave es repetir el acierto. En 25 años hemos dado un salto de gigante en la construcción nacional, política, social, cultural, lingüística". Y tres los retos nuevos de la generación actual: pacificación, normalización y acuerdo social.

El primero es el reto de la paz: "las expectativas de pacificación que ahora se abren son posibles porque la sociedad vasca y las instituciones democráticas han demostrado su fortaleza y superioridad frente a la violencia. Es la victoria de los principios éticos".

Tras subrayar que "la paz es la prioridad", Imaz recordó que "en las próximas semanas deberá abordarse el diálogo con ETA. Un diálogo indispensable para hacer irreversible la paz, pero un diálogo en el que el futuro político de la sociedad vasca no debe ser abordado. Vincular la paz a un proyecto político determinado por legítimo que sea sería reconocer la validez de la violencia para alcanzar objetivos políticos".

El segundo reto es la normalización política: "alcanzar un acuerdo que defina un modelo de convivencia, que respete la voluntad democrática de la sociedad

euskal herritarren gehiengoaren borondatea zapuztea erabaki zutenei aurre eginez, hain zuzen ere. Gizartearen ikuspegitik ere Euskadi nazioago da gaur. Legebiltzarra, Gobernua, Lehendakaria eta euskal erakundeak dira herritarrek gehien estimatzen dituztenak; gure seme-alabek euskara aurreko belaunaldiek baino gehiago erabiltzen dute".

## Bakegintza, normalizazioa eta gizarte-ituna

Imazen berbetan, orain "ongi egindakoa errepikatzea da gakoa. 25 urtean urrats erraldoia eman dugu nazioaren, politikaren, gizartearen, kulturaren eta linguistikaren eraikuntzan". Eta, haren ustez, hiru dira gaur egungo belaunaldiaren erronkarik nagusienak: bakegintza, normalizazio politikoa eta gizarte-ituna.

Lehenengo erronka bakearena da: "bakegintzarako orain irekitzen ari diren itxaropenak nabarmendu nahi nituzke. Izan ere, euskal gizarteak eta erakunde demokratikoek sendotasuna eta nagusitasuna erakutsi dute indarkeriaren aurrean. Printzipio etikoen garaipena da".

"Lehentasuna bakea dela" azpimarratu ondoren, Imazek gogoratu zuen: "datozen asteetan ETArekin elkarrizketa izateko aukerari heldu behar zaio. Ezinbesteko elkarrizketa da bakea atzeraezina izan dadin, baina ezin da elkarrizketa horretan euskal gizartearen etorkizun politikoari buruz hitz egin. Horri buruz hitz egiteak proiektu horrekin bakea uztartzea esan nahi izango luke. Hori helburu politikoak lortzeko indarkeriaz baliatu daitekeela onartzea litzateke."

Bigarren erronka normalizazio politikoa da: "elkarbizitzarako akordioa lortzea da, elkarrekin

vasca, con un marco de relaciones con el Estado de bilateralidad, garantías y lealtad. El pacto y la no-imposición es el procedimiento por el que se constituyen las reglas de juego en las sociedades avanzadas".

Imaz citó la Iniciativa del EBB, ratificada por la Asamblea Nacional, para que "la mesa de partidos vascos aborde una solución con un doble compromiso: No imponer un acuerdo de menor aceptación que los actualmente vigentes. No impedir un acuerdo de mayor aceptación que los actualmente vigentes".

## La consulta, como resultado de un proceso

EAJ-PNV considera que el acuerdo que la sociedad vasca reclama deberá ser consultado a la ciudadanía, como exigencia política y democrática siempre que se propone una modificación sustancial del marco de convivencia. La consulta "no es un arma arrojadiza, ni una excusa de los partidos para delegar en la sociedad la obligación que tienen de trabajar y lograr un acuerdo".

EAJ-PNV cree en la sociedad vasca y en la capacidad de los partidos políticos de alcanzar acuerdos, y plantea un reto que pudiera entenderse como autolimitación excesiva. Pero los grandes triunfos nacen de las autolimitaciones. Como dice Imaz: "nuestro objetivo ante la consulta consistirá en obtener una mayor adhesión que la obtenida por el Estatuto de Gernika. Esta será la piedra angular, la referencia básica para validar democráticamente el nuevo punto de encuentro para la convivencia política".

Definido el acuerdo político, el mismo deberá ser desarrollado mediante un texto de Nuevo Estatuto que determine para las instituciones vascas el ámbito competencial para desarrollar la identidad en los ámbitos de educación, lengua y cultura. Un Concierto Económico garantizado, cuyas decisiones normativas tengan carácter de ámbito fiscal propio y, por tanto, los recursos a las mismas en cualquier ámbito (sea judicial o europeo) sólo puedan ser cuestionados en los mismos términos que los de otro sistema general. Capacidad competencial en las materias económicas, medioambientales y formativas para desarrollar un entorno competitivo. Un sistema social y de seguridad social, complementado con una política fiscal solidaria.

El presidente del EBB agradeció a los parlamentarios su labor durante las ocho legislaturas: "este es el reto de nuestra generación. Sólo espero que su resultado sea tan exitoso como el que vosotros habéis desarrollado en los últimos 25 años. Y confiar que entre todos volvamos a acertar al igual que acertaron quienes nos precedieron en la tarea".

bizitzeko modua zehaztuko duen akordioa; Estatuarekin izan beharreko harremana finkatuko duena, aldebikotasunez, bermez eta leialtasunez. Akordioa eta inposiziorik eza dira gizarte aurreratuek dituzten joko-arauen oinarriak."

Imazek EBBk onartu eta Aberri Batzarrak aho batez onetsitako Ekimena aipatu zuen: "euskal alderdien mahaiak bi konpromisotan oinarritutako konponbidea lantzea da: gaur egun indarrean dauden akordioek baino onarpen txikiagoa duen akordiorik ez inposatzea. Eta gaur egun indarrean dauden akordioek baino onarpen handiagoa duen akordioak ez eragoztea".

## Kontsulta, prozesuaren emaitza

EAJk uste du beharrezkoa dela euskal gizarteak eskatzen duen akordio horri buruz herritarrei galdetzea; hori bete beharreko eskakizun politikoa eta demokratikoa baita elkarbizitza eredua sakon aldatu nahi baldin bada behintzat. Kontsulta ez da eraso egiteko arma, ez eta alderdien aitzakia ere gizartearen esku uzteko izatez alderdiena baino ez den betebeharra".

EAJ-PNVk euskal gizartean eta alderdi politikoek elkarbizitzarako akordioak lortzeko gaitasunean sinesten duenez gero, "batzuentzat geure burua gehiegi mugatzea baino ez den erronka hartu dugu. Baina garaipen handiak norberak bere burua mugatuta sortzen dira. Imazek esan bezala, "herri-kontsultan gure helburua izango da Gernikako Estatutuak lortu zuen babesa baino babes zabalagoa lortzea. Horixe izango da giltzarria, elkarbizitza politikorako bilgune berria demokratikoki balioztatzeko oinarrizko erreferentzia."

Akordio politikoa mugatu ostean, autogobernu beharrei erantzuna emateko gauza izango den Estatutu Berria zehaztu beharko da, euskal erakundeei eskumen-esparrua definituko dien Estatutu Berria, hezkuntzaren, hizkuntzaren eta kulturaren eremuetan. Ondo bermatutako Kontzertu Ekonomikoa, haren arauek zerga eremu propioa sorraraziko dutena, eta, beraz, haietarako baliabideak edozein eremutan ere (nola judiziala, hala Europakoa) beste sistema orokor bat auzitan ipintzen den neurri berberean ipini ahal izango da zalantzan. Inguru lehiakorra garatzeko beharrezkoak diren eskumen ahalmenak ekonomia, ingurumen eta hezkuntza alorretan. Sistema soziala eta gizarte segurantzakoa, zerga politika solidarioaren osagarri gisa.

EBBren lehendakariak amaitu zuen zortzi legeldietan zehar parlamentariek egindako lana eskertzen: "Hauxe da gure belaunaldiaren erronka. Hurrengo emaitza ere zuek azkeneko hogeita bost urtean egin duzuena bezain arrakastatsua izango dela espero dut. Lan horretan gure aurretik aritu zirenek asmatu zuten bezalaxe, berriro ere asmatuko ahal dugu guk¡"



Liburuaren azala

# LA GUERRA CIVIL EN EUSKADI:

## Testimonios de 136 exiliados

**El libro es testigo del exilio vasco a Iparralde tras la guerra de 1936, a través del testimonio directo de 136 exiliados. Se trata de una recopilación inédita del científico y humanista José Miguel de Barandiaran, a partir de los testimonio directo y personal de conciudadanos suyos en una situación similar a la que él mismo estaba padeciendo: el exilio.**

Publicada por la Diputación de Gipuzkoa, con la colaboración de Jean Claude Larronde y José de Gamboa, la obra constituye un alegato en defensa de la memoria histórica y la reivindicación de los derechos humanos. En expresión del diputado General, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri "vivimos en la hora del presentismo, en el aquí y en el ahora. Por ello, hoy más que nunca, es necesario reivindicar la memoria de nuestro propio pasado, por muy doloroso que éste haya sido. Porque ser es también haber sido, porque la memoria y la identificación con nuestro pasado ofrecen significado, sentido y valor a nuestra existencia, porque la memoria es parte de nuestra identidad personal y comunitaria".

Esta publicación de la Asociación Bidasoa, además de presentar el testimonio vivo de los exiliados vascos, muestra la mano maestra de José Miguel de Barandiaran, trabajando codo a codo con personas ricas en experiencias dramáticas.

**Gerrak, liskarrak, gatazkak... gehienetan garaileen ikuspuntutik aztertu izaten dira, eta sarri asko, gainera, agintarien jarrera da aintzat hartu izaten dena, jeneralena eta hierarkia nagusiarena alegia. Jose Migel Barandiaranek, ostera, bererarekin batera Iparraldera ihesi joan behar izan zuten 136 galtzaileren gertakari latzak eta estualdiak bertatik bertara jaso zituen eta bizi-bizi bildu.**

Jean Claude Larrondok eta Jose de Gamboak elkarrekin osatutako bilduma hau Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara eman du, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Diputatu Nagusiaren hitzaurre eta guzti. Beronek dioenez: "Lekukotza zuzenak, gordinak, zintzoak... dira lan honen muina. Hauek irakurtzea zirraragarria da, eta irakurlea bereganatzen du hainbesterainoko frustrazio eta gizatasun faltaren artean". Txabarriren ustez, guztia "ezinbesteko ekarpena da, beti ere gizakiaren ikuspuntutik, erbestealdiaren handitasuna eta benetako neurria ulertzeko, gudari galtzailearen ikuspuntutik".

Hain zuzen ere, Bidasoa Elkartearen estreinako bilduma hau aparteko lekukotza bizia da, gure aurretik izan zirenen "memoria historikoaren defentsarako aldarrikapena eta giza eskubideen aldarrikapena".

# ZURE IRITZIA

Iniciamos en este número de la revista "Alderdi Berriak", una serie de colaboraciones de personas de los diferentes ámbitos de la vida política, cultural y económica de nuestro país, que nos darán una opinión muy personal del momento actual por el que atraviesa Euskadi. En esta primera entrega, es la ex-parlamentaria de EAJ-PNV y posteriormente de EA, Ana Bereziartua, la que aporta su punto de vista sobre el proceso político que se ha iniciado tras la declaración por parte de ETA de un alto el fuego permanente.

**"Alderdi Berriak" aldizkariaren ale berri honetan gure herrialdeko politika, kultur eta ekonomi eremuei estuki lotuta dauden pertsonen lankidetzari emango diogu hasiera. Lan hauekin Euskadik momentu honetan bizi duen egoeraren gaineko iritzi ezberdinak jaso nahi ditugu. Ale honetan, EAJren legebiltzarkide ohia eta, ondoren, EA-rena izan zen Ana Bereziartuaren lankidetza dugu. Bereziartuak ETAk su eten iraunkorra iragarri ondoren martxan jarri den prozesu politikoari buruz duen iritzia azalduko digu.**

## No os debemos nada, no os agradecemos nada.

Siento la necesidad de responder con rotundidad a una convicción enormemente extendida dentro del mundo de Batasuna, y a mi juicio absolutamente falsa. La gente del entorno del autodenominado Movimiento Nacional de Liberación Vasco está convencida de que el autogobierno que hoy tenemos se lo debemos en gran parte a Batasuna y a ETA. Pero yo, como parlamentaria de las tres primeras legislaturas del Parlamento Vasco, por EAJ-PNV (I y II) y EA (III), afirmo categóricamente que nada debo ni agradezco a Batasuna. Es más, lo único que me ha aportado Batasuna, ETA y el MNLV es angustia, sufrimiento, lágrimas y vergüenza.

Algunas reflexiones

El balance que aporta el mundo de Batasuna-MNLV-ETA a Euskadi durante el período 1980-2006 no puede ser más negativo. Hoy tenemos exactamente el mismo marco jurídico que teníamos en 1980 (Estatuto y Constitución).

- ¿A cambio de que hemos tenido tanta sangre, cárcel, amenazas, sufrimiento y extorsión?

- ¿Quienes apostaron en 1980 por la muerte y las bombas, que han conseguido hasta hoy? ¿Y las personas que apoyaron aquella ruptura, se atreverían a mantener hoy que aquel horror ha merecido la pena? ¿Ha servido ETA para algo en la construcción nacional vasca?

- ¿No es acaso obvio que aquella decisión de apostar por la ruptura, el testimonialismo y la violencia en 1980 fue, además de moralmente inaceptable, un grandísimo error estratégico que Batasuna y ETA han tardado 25 años en corregirlo? Vuestro empecinamiento en esa vía muerta, nunca mejor dicho, ¿no os hace cuestionar vuestros posicionamientos y reforzar la autocrítica?

- ¿Han tenido que ser Bin Laden con el 11-S y los marroquíes de Lavapiés del 11-M quienes os han convencido de que con bombas y muerte no se va a ninguna parte? Eso ya os lo había dicho la sociedad vasca infinitas veces estos últimos 25 años. Estoy absolutamente segura que si ETA(m) hubiese decretado alto el fuego permanente cuando se aprobó el estatuto de Gernika en 1979, aparte de que hoy estarían con nosotros 800 seres humanos más y 500 presos menos, el nacionalismo vasco gozaría de mejor salud en los 3 territorios de la Comunidad Autónoma Vasca y mucho menos rechazo en Nafarroa.

Sin tanta violencia, hoy habría más posibilidades de llegar a un acuerdo con la comunidad foral. Fue imposible promover eficazmente la convergencia de Nafarroa con la CAV, cuando por aquel entonces padecíamos uno o dos asesinatos a la semana. Y no había mejor excusa que la violencia para que nuestros enemigos de siempre exhibieran el terror como argumento contra la integración.

Es absolutamente cierto que el Estatuto de Gernika ha sido sistemáticamente incumplido por los enemigos del autogobierno vasco, el PP y el PSOE, pero también es cierto que la recuperación del Concierto Económico y las políticas educativas han conseguido una menor tasa de paro, mayor PIB per capita, mejores servicios y un avance del conocimiento y uso del euskera en la sociedad vasca.

Política Económica del Gobierno Vasco y recuperación del Concierto Económico

- ¿Qué ha aportado Batasuna y el MNLV al progreso económico-social en Euskadi?

- ¿Cuántos proyectos promovidos por Batasuna han permitido que nuestros economistas e ingenieros mejoren y aporten riqueza a nuestra sociedad? Mucho me temo que el único I+D que ha aportado el MNLV ha sido el sofisticado coctel molotov con ácido sulfúrico en vez de la simple gasolina que usaban en los 80.

- ¿Acaso el impuesto revolucionario o el asesinato del líder de la patronal gipuzcoana, Joxe Mari Korta, aportan riqueza a la sociedad vasca? Políticas de Educación, Cultura y Sociedad

- En 1980 muy pocos jóvenes menores de 18 años entendían o hablaban el euskera en Bilbao o en Vitoria. Hoy la casi totalidad de ellos lo entiende y muchos lo hablan. ¿Qué le debe el sistema educativo vasco a Batasuna? Nada, absolutamente nada.

- ¿Alguien recuerda que Batasuna haya aportado algún proyecto novedoso en servicios sociales o cultura? Yo he estado en las comisiones de Educación, Sanidad y Servicios Sociales del Parlamento Vasco y su aportación fue "conjunto vacío", como dicen en matemáticas.

Todavía me acuerdo de como en los 80, Batasuna se refería con soberbia y chulería al Parlamento Vasco como "parlamentillo o parlamento vascongado", y que ni siquiera se dignaban a asistir. Ni Aznar en sus mejores tiempos fue tan arrogante con la sede de la soberanía de los vascos. Yo estoy orgullosa de haber aceptado aquel pacto que ha permitido tener la sociedad que hoy tenemos. Además esta sociedad es una buena base para nuevas conquistas del nacionalismo vasco en el futuro.

Respeto a la voluntad del los vascos. En la actual legislatura la izquierda abertzale tiene 10 de 75 parlamentarios, en la anterior 7 de 75, anterior 14 de 75... Y en todas las legislaturas, la mayoría absoluta de la cámara exigía que ETA abandonara la violencia. Es que cuando la Cámara que representa la voluntad de los vascos dice que ETA desaparezca, ¿no está expresada meridianamente clara la voluntad de los vascos? ¿Es cinismo o sordera parcial la respuesta de Batasuna a las innumerables peticiones del Parlamento Vasco a ETA que deje las armas? No son gudaris

Por último quiero negar dos condiciones que se auto-atribuyen ETA y Batasuna. Tuve el privilegio de conocer muy de cerca a varios gudaris que defendieron Euskadi durante los dramáticos 1936-37. Gocé de la amistad de Joseba Elósegi, capitan de gudaris en Gernika, de Txaltxa y de Iradi. Jamás ninguno de los tres hubiera sido capaz de disparar en la cabeza a una persona maniatada como ETA lo hizo con Berazadi, Ibarra, Ryan, Martín Barrios y Miguel Ángel Blanco. Por lo tanto niego a ETA la condición de "gudaris" que atribuye a sus ejecutores.

También, y por los puntos arriba expuestos, niego a Batasuna su condición de abertzales, ya que su actitud ha sido estos últimos 25 años un banco de argumentos contra el nacionalismo vasco y un enorme lastre para el respeto al autogobierno, voluntad nacional y territorialidad de los vascos. Ahora estoy a punto de cumplir 70 años y siento que nada debo ni agradezco a Batasuna/MNLV. Hoy, visto como empezó ETA y como acaba, creo que el EAJ-PNV tuvo razón cuando no quiso empuñar las armas durante el franquismo. Martin Luther King y Ghandi tenian razón cuando rechazaban la violencia, incluso contra los injustos.

Espero que al final de mi vida, esto cambie y pueda hacer un balance más positivo de lo que Batasuna pueda aportar a partir de 2006. Hoy no los veo preparados.

Ana Bereziartua




Portada del libro

**El 12 de marzo de 1956, Jesús Galíndez, Delegado del Gobierno vasco en el exilio Estados Unidos, fue secuestrado en Nueva York, trasladado a la República Dominicana y después de haber sido cruelmente torturado, asesinado. Su vida es también la historia de un Pueblo y de una sociedad. Y de un grupo de hombres y mujeres que, apenas sin medios, intentaron defender la causa del Pueblo Vasco en el mundo.**

Galíndez se convirtió en uno de los primeros desaparecidos, por causas políticas, de la historia reciente de la humanidad. Fue un crimen de Estado, perpetrado por el Dictador Dominicano Rafael Leonidas Trujillo. Un crimen que contó con la ayuda y colaboración, directa e indirectamente de funcionarios del Gobierno norteamericano, entre ellos policías y personas que de algún modo estaban o estuvieron ligados a los servicios secretos americanos. Un crimen en cuya labor de encubrimiento trabajaron congresistas norteamericanos, prestigios abogados e incluso medios de comunicación, a través de influyente lobby que Trujillo había creado en Estados Unidos.

Galíndez fue escritor, abogado, periodista, Gudari, profesor de la Universidad de Columbia, Historiador, Delegado del Gobierno Vasco en Santo Domingo, mecanógrafo, conferenciante, Presidente del Círculo de Escritores y Poetas Iberoamericanos de Nueva York, Delegado del Gobierno Vasco en Nueva York, observador oficioso del Gobierno Vasco en las Naciones Unidas y espía.

Es la historia que se recogerá en el libro que la Fundación Sabino Arana editará en Septiembre escrito por Iñigo Camino e Iñaki Bernardo.

# GALINDEZ: desagertu zen lehen politikoa

**Erbestean, Estatu Batuetan, Eusko Jaurlaritzaren eskuordea zen Jesús Galíndez bahitu egin zuten Nueva Yorken, 1956ko martxoaren 12an. Bahitu ondoren Errepublika Dominikarrera eraman zuten eta, tortura latzak eta gordinak pairatu ondoren, bertan hil zuten. Bere bizitza, aldi berean, Herri oso baten eta Gizarte baten bizitza izan zen. Ia baliabiderik gabe mundu osoan Euskal Herriaren kausa defendatzeko ahalegina egin zuen gizon eta emakume talde batena.**

Galíndez humanitatearen oraintsuko historian arrazoi politikoengatik desagertu zen lehenbiziko adibideetakoa da. Estatuko krimena izan zen, Rafael Leonidas Trujillo diktadore dominikarrak eragin zuena. Krimen horretan, zuzenean edo zeharka, Ipar Amerikako gobernuko funtzionarioen laguntza eta lankidetza izan zen, horien artean polizienak edo Estatu Batuetako zerbitzu sekretuekin zerikusiren bat zuten pertsonenak. Hilketa estaltzeko eta ezkutatzeko lanetan Ipar Amerikako kongresistek, abokatu oso ospetsuek eta baita komunikabideek ere, jardun zuten, Trujillok Estatu Batuetan sortu zuen lobby indartsuaren bidez, alegia.

Galíndez idazlea, abokatua, kazetaria, Gudaria, Columbiako Unibertsitateko irakaslea, historiagilea, Eusko Jaurlaritzaren eskuordea Santo Domingon, mekanografoa, hizlaria, Nueva York hiriko Círculo de Escritores y Poetas Iberoamericanos elkarteko lehendakaria, Eusko Jaurlaritzaren eskuordea Nueva Yorken, Eusko Jaurlaritzaren begirale ez-ofiziala Nazio Batuetan eta espioia izan zen.

Hori da Sabino Arana Fundazioak irailean argitaratuko duen liburuan kontatzen den historia. Autoreak Iñigo Camino eta Iñaki Bernardo dira.

# EL NACIMIENTO DE LA IKURRIÑA



Ikurriña lehen aldiz jaso zen 1894ean, Euskaldun Batzokijan

**Hace ahora 106 años, a las seis de la tarde del 14 de julio de 1894, se izaba por primera vez la Ikurriña en el balcón de los locales que la primera entidad nacionalista vasca, el Euskeldun Batzokija, tenía en la calle Correo, esquina al Arenal de Bilbao. Con su primera izada es como "nacen" las banderas y así fue como lo hizo la nuestra, y, en cierto modo, Euskadi también.**

Tuvo el honor de izarla el miembro más veterano del Euskeldun Batzokija, Ciriaco de Iturri, que veinte años antes había sido oficial del derrotado ejército carlista. Los creadores de la bandera fueron los hermanos Luis y Sabino de Arana y Goiri y, al considerarla entonces como la bandera de Bizkaia, la bizkaitarra, pretendieron trasladar al nuevo emblema los principales componentes del escudo bizkaino.

La Ikurriña trascendería de los propósitos de sus creadores para acabar siendo asumida por el Pueblo Vasco como su bandera nacional. Ha sido miles de veces izada por sus defensores y arriada por sus enemigos. Ha precedido a los batallones de los gudaris. Ha ondeado en los barcos que salvaban a nuestros niños de la guerra. Proscrita y escondida. Atacada, hasta la conjunción de sus colores, rojo, blanco y verde. Y defendida. Tejida, dibujada o pintada como muestra de Resistencia. Imaginada, cuando no había otra opción. Querida. Como la Libertad y la Nación vasca que simboliza.

**Duela 106 urte, 1894ko uztailaren 14ko arratsaldeko seietan, lehenengo aldiz altxatu zen Ikurrina Euskal Herriko lehen erakunde jeltzaleak, hots, Euzkeldun Batzokijak, Bilboko Arenalari zeutsola Posta kalean zuen lokaletako balkoian. Horrela "sortzen" dira banderak, eta horrela gertatu zen gurearekin ere, eta nolabait, Euskadirekin ere.**

Euzkeldun Batzokijaren kiderik zaharrenak, Ciriaco de Iturri zenak, izan zuen Ikurrina lehen aldiz altxatzeko ohorea; izan ere, Ciriaco de Iturri armada karlista menderatuaren ofiziala izana zen hogei urte lehenago. Ikurrinaren sortzaileak Luis eta Sabino Arana anaiak izan ziren; garai hartan, baina, Bizkaiko banderatzat hartzen zuten, bizkaitarra izenez, eta horrenbestez, Bizkaiko armarriko osagai nagusiak jarri nahi izan zituzten ikur berrian.

Ikurrinak beraren sortzailearen asmoak gainditu zituen eta azkenean Euskal Herri osoak hartu zuen aberri-ikurtzat. Milaka aldiz altxatu izan dute haizetara beraren defendatzaileek, eta hainbat aldiz jaitsi haren arerioek. Gudarien batailoien ikurburu izan da. Gerra zibilean, gure umeak salbatzen zituzten itsasuntzien mastetan higitu izan da, haizetan. Galarazia eta ezkutuan gordea. Erasoa, harik eta gorriak, zuriak eta berdeak odol gorriaren koloreaz bat egin arte. Eta defendatua. Jazarpenaren erakusgarri gisa ehundua, marraztua edota margoztua. Irudikatua, beste aukerarik ez zegoenean. Maitatua. Sinbolizatzen duen Askatasuna eta Euskal Aberria legez.

# alderdi eguna´06

Irailaren **24**a

**FORONDA**

